

LANGILE KLASEA INDARTU



INPERIALISMOARI AURRE EGITEKO

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

ELAren Nazio Batzordearen ebazpena NATOrri buruz erreferendumaren 40. urteurrenean eta ziklo inperialista berriaren, militarizazioaren eta erasoaldi atzerakoiaurren aurrean

0. AURKIBIDEA

1.	Sarrera	3
2.	Burujabetza eta ekosozialismo feminista antirrazista mehatxu kapitalista eta inperialistari aurre egiteko	4
	Autoritarismo eta militarismoaren gorakada munduko hegemonia lortzeko	4
	Trantsizio ekosozialista, feminista eta antirrazistaren beharra.....	6
3.	Enpresa handien eta AEBen esanetara dagoen Europar Batasunaren gainbehera	7
	Europar Batasuna kapitalaren morroi.....	7
	Austeritatea gizarte inbertsioan, diru publikoa armagintzarako eta gerrarako	7
	Trumpen politiken menpeko	8
	Premiazkoa da Europako politikak berriz bideratzea: giza eskubideak, demokrazia, burujabetzak eta justizia soziala	8
	OTANen desagitea	9
4.	Botere sindikala, elkartasuna eta Greba Orokorra faxismoari aurre egiteko	10
	Autoritarismoa eta faxismoa kapitalaren estrategia gisa.....	10
	Demokrazia liberal formalen krisia eta ezkerrearen alternatibarik eza	10
	Jendarte antifaxista eraiki	11
	M17 Greba Orokorra: demokrazian eta justizia sozialean irabazteko burujabetza proposamena	11
	Nazioarteko elkartasun antifaxista eta antiimperialista.....	11
5.	Ondorioak	12

1. SARRERA

2026ko martxoaren 12an 40 urte beteko dira Felipe González buru zuen Espainiako Gobernuak euskal gizarteari NATOk kide izatea inposatu zionetik. Kapitalaren eta Estatu Batuen interesak defendatzeko egitura militar nagusian integratzeko erabakia bereziki nahasia zen testuinguru politiko batean hartu zen: erregimen frankistak baldintzatutako trantsizioa, Adolfo Suárezen dimisioa, 1981eko otsailaren 23ko estatu kolpe saiakera eta Estatu Batuek egingutako presio handia ezkererako edozein norabide aldaketa eragozteko eta Espainiar Estatua, Gerra Hotzaren testuinguruan, bere arkitektura militarrean txertatzeko. Horri gehitu behar zaio Iranen eta Iraken arteko gerrak eragindako energia krisiak markaturiko nazioarteko testuingurua: gatazka horretan Estatu Batuek Saddam Husseinen erregimena babestu zuten, Irango iraultza geldiarazteko eta, munduko energia hornidurarako funtsezko eskualdea den, Pertsiar Golkoaren gaineko kontrol estrategikoa bermatzeko.

NATOn sartzea 1982an erabaki zen, inolako herri kontsultarik gabe; hala ere, 1986an berretsi zen PSOEn gobernuak deitutako erreferendumaren bidez. Alderdi horrek lehenago Aliantza Atlantikotik ateratzearen alde egin bazuen ere, erreferendumean NATOn jarraitzearen aldeko kanpaina egin zuen. Kontsulta hartan, euskal gizarteak argi eta garbi adierazi zuen bere aurkakotasuna.

Sortu zenetik, NATO Estatu Batuen estrategia geopolitikoaren tresna nagusietako bat izan da, kapitalaren interesak defendatzeko eta bere hegemonia globalari eusteko. Gaur egun, munduko hegemonia eta baliabide naturalen, lehengaien eta energiaren kontrola lortzeko lehia berriak markatutako testuinguru batean, ezinbestekoa da prozesu historiko hura ikuspegi kritikotik berrikustea. Fase inperialista berri honen aurrean, premiazkoa da herrien subiranotasuna indartzea, NATO desagitea exijitzea eta justizia sozialean, bakean eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako nazioarteko ordena berri baten alde egitea.

Ebazpen honen helburua da, bizi dugun nazioarteko testuinguru nahasiaren aurrean, ELAk duen jarrera zehaztea; munduan indartzen ari den deriba inperialista eta militarista salatzea; eta erantzun demokratiko eta internazionalista baten beharra aldarrikatzea, ikuspegi ekosozialista, feminista eta antirrazistatik. Aldi berean, sindikatuak faxismoaren aurkako borrokan eta langile klasearen interesen defentsan duen konpromisoa berresten du.

2 BURUJABETZA ETA EKOSOZIALISMO FEMINISTA ANTIRRAZISTA MEHATXU KAPITALISTA ETA INPERIALISTARI AURRE EGITEKO

AEBetako gobernuaren azkenaldiko gerra ekintza krimenak, erasoak eta mehatxuek, nazioarteko ordena ekonomikoan izandako aldaketek eta autoritarismoaren zein faxismoaren gorakadak adierazten dute mundua ziklo historiko berri batean sartu dela. Egungo abagunean, nabarmena da nazioarteko zuzenbidea eta giza eskubide unibertsalen inguruko oinarritzko adostasunak, praktikan, desegiten ari direla.

ELAren ustez, egoera honetaz jabetzea eta hari aurre egitea betebeharrak morala eta eginkizun militantea da, justizia soziala, giza eskubideak, planetaren oreka ekologikoa, demokrazia eta bakea oinarri dituen mundua defendatzen dugunontzat.

Autoritarismo eta militarismoaren gorakada munduko hegemonia lortzeko

Egungo une historikoa ulertzeko, funtsezkoa da ziklo aldaketa eta mundu ordena berri honen jatorria eta zergatiak ezagutzea. ELAren iritziz, mehatxuok kapitalismo globalaren ondorio dira: produkzio eta merkataritza logikak gainditu eta erabat finantzarizatu den kapitalismoak desparekotasuna eta prekaritate masiboa hedatzen ditu, elite murrizten baten mesederako. Kapitalaren, patriarkatuaren eta kolonialismoaren arteko aliantza une historiko bakoitzean berregituratzen da, eta gehiengoaren bizia baldintzen eta eskubideen aurka egiten du.

Elite horrek gerra, botere militarra eta finantza merkatuen gaineko kontrola erabiltzen ditu aberastasun gero eta handiagoa pilatzeko, Hegoaldeko herrialdeak eta Iparraldeko herriak xumeak espoliatuz.

Eredu horri eusteko, kapitalismoak lehengaien eta baliabide estrategikoen kontrol militarra erabiltzen du eta, aldi berean, bere interesak bermatzen dituzten erregimen autoritario eta antidemokratikoak inposatu edo babesten ditu; horrela, mundua are sistema autoritarioago batera bultzatzen du.

Testuinguru horretan ulertu behar da munduko potentzia nagusien arteko lehia, bereziki Estatu Batuen eta Txinaren artekoa, nagusitasun komertzial, teknologiko eta ekonomikoa lortzeko borrokan. Txinaren garapen teknologikoaren eta gero eta pisu ekonomiko handiagoaren aurrean, Estatu Batuetako gobernuak, Trumpen presidentetzapean, mehatxuetan, gerretan, zigorrak ezartzean eta esku hartzeetan oinarritutako estrategia areagotu du, Txinaren gorakada geldiarazteko eta azken hamarkadetan galdutako eragina eta botere ekonomikoa berreskuratzen saiatzeko.

“Segurtasun estrategia” deitzen dena, egiazki, Bigarren Mundu Gerratik hona Estatu Batuek garatu duten inperialismoaren adierazpen berritua da: segurtasuna eta ekonomia aitzakia gisa erabiliz herrialde askotan militarki eta politikoki esku hartzeko politika, haien subiranotasuna urratuz. Helburua ez da demokrazia zabaltzea edo giza eskubideak defendatzea; aitzitik, bere interesak inposatzea, hegemonia mantentzea eta bere botere ekonomiko eta politiko globalari eusten dioten ondasun naturalen, funtsezko baliabideen, energia bideen eta

korridore estrategikoen sarbidea eta kontrola bermatzea du helburu. Horretarako, nazioarteko zuzenbidea urratzea, gerra krimenak egitea, genozidioak babestea, diktadurak ezartzea edo munduko hainbat eskualdetan eskuin muturreko indarrak bultzatzea bezalako praktikak baliatzen ditu.

Logika horren barruan kokatzen da Venezuelaren aurka egindako eraso larria, bonbardaketak eta Nicolás Maduro presidentea eta haren emazte Cilia Flores bahitzea. Esku hartze horren helburua Venezuelako petrolio erreserben gaineko kontrola ziurtatzea, Txinaren sarbidea mugatzea eta nazioarteko merkataritzan dollarraren nagusitasuna mantentzea da. Aldi berean, Kubaren aurkako presio strategiaren parte da; izan ere, herrialde horrek duela sei hamarkada baino gehiago pairatzen duen blokeoa helburu argia du: gizartea ekonomikoki itota kolapso soziala eragitea eta gobernu aldaketa bultzatzea. ELAk, beste behin ere, Kubaren aurka ezarritako blokeoa salatzen du eta praktika kriminal hau berehala etetea exijitzen du.

Sindikatuak eraso horiek guztiak gaitzesten ditu eta Nicolás Maduro eta Cilia Flores askatzea eskatzen du, baita bi herrien subiranotasuna eta bere orain eta etorkizuna libreki erabakitze-ko eskubidea errespetatzea eskatzen du.

Palestinan Israel egiten ari den genozidioak —AEBen babes osoarekin eta Europar Batasunaren eta Europako gobernuen konplizitatearekin— eta AEBek, Israelekin batera, Irani egindako azken eraso militarrek agerian uzten dute kontrol geopolitiko eta ekonomikoaren logika inperialista hori. Iranen piztutako gerra ez da tokiko gatazka hutsa: nazioarteko ordenaren krisia sakontzen du eta nazioarteko zuzenbidearen zein giza eskubideen urraketa sistematikoa areagotzen du. Milaka biktima zibil eragiteaz gain, eskala handiko eskualde gatazka pizteko arriskua dakar eta ondorio ekonomiko larriak izan ditzake mundu osoan.

Ormuzeko itsasartearen itxiera praktikoak —petrolioaren eta gasaren munduko merkataritzaren zati handi bat igarotzen den pasabide estrategikoa— energiaren prezioa igotzea eragiten ari da dagoeneko, eta planetako merkataritza ibilbide nagusiak kolokan jartzen ditu. Egoera horrek agerian uzten du eskaladaren atzean dagoen logika geopolitikoa: energia fluixuak, lehengaien prezioak, merkataritza bideak eta nazioarteko transakzioetan erabiltzen den moneta kontrolatzeko saiakera, Txina —AEBen lehiakide sistemiko nagusia— ahultzeko.

Egoera horren ondorioak larriak izan daitezke gehiengo sozialarentzat. Energia horniduraren krisiak, nazioarteko merkataritzaren etenak eta oinarritzko ondasunen garestitzeak inflazio espiral berri bat eragin dezakete. Aurreko krisietan bezala, kostu horiek nagusiki langile klaseak eta herritar xumeek ordainduko dituzte, jada hamarkadetako politika neoliberalen eta kapitalaren irabazi gosearen ondorioz gogor kolpatuak.

Bestalde, ICEren moduko indar polizialek milaka migraturiko pertsonaren eta manifestariren aurka baliatzen duten jazarpena, deshumanizazioa eta indarkeria ikustea aski da egiaztatze-ko ez AEBek, ez haren hainbat aliatuk (Israel, Saudi Arabia, Qatar, El Salvador...) ez dituztela ustez defendatzen dituzten balio demokratikoak eta giza eskubideak betetzen.

Estrategia honen asmoa ez da munduan zehar balio demokratikoak edo giza eskubideak hedatzea; aitzitik, helburua AEBetako enpresa handien interes ekonomikoen alde jokatzeko da.

Horregatik guztiagatik, gaur inperialismoa are ozenago salatu behar dugu, eta aldarrikatu mundu ordena beste oinarri batzuen gainean eraiki behar dela: bakea, giza eskubideen errespetua eta herrien burujabetza. Gaur egun, nazioarteko egonkortasunerako eta bakerako arrisku nagusietako bat Trumpen gobernuak bultzatutako estrategia inperialista da.

Trantsizio ekologista, feminista eta antirrazistaren beharra

Egoera honetan, baliabide natural mugatuak dituen mundu batean, bi bideren aurrean gaude: kapitalismo basatiaren egungo bidea, faxismoaren gorakadara garamatzana; ala bizitzaren zaintza, herriak eta pertsonak erdigunean jarriko dituen trantsizio ekosozialista, feminista eta antirrazistan oinarritutako alternatiba.

ELAren ustez, gaur egungo une politikoak estrategia ekosozialista, feminista eta antirrazista indartzea eskatzen du. Horrek gizarte berdinzaleago baterantz aurrera egitea esan nahi du, baina baita planetaren mugak aintzat hartzea ere: ekoizpena eta kontsumoa arautzea, ekoizpena birlokalizatzea eta sektore estrategikoak —energia, finantzak, elikadura, zaintza eta telekomunikazioak— berriz ere kontrol publikoaren pean jartzea.

Ekonomia ofizialean ekoizpenak eta kontsumoak lehentasuna izanagatik ere, ezin da ahaztu bizitza ere monetizatu eta finantziarizatu gabeko ekonomiari esker sostengatzen dela. Ekonomia horrek ez du burtsan kotizatzen, baina egunez egun bizitza posible egiten eta zaintzen du. Hori, alde batetik, mundu osoko emakume langileen lanari esker gertatzen da, etxean zein etxetik kanpo; eta, bestetik, zapaldu eta esplotaturiko herrialdeen eta haien herritarren kontura, inolako aitortza sozial, politiko edo ekonomikorik gabe.

3. ENPRESA HANDIEN ETA AEBEN ESANETARA DAGOEN EUROPAR BATASUNAREN GAINBEHERA

ELAk bere historian zehar elkartasuna eta nazioarteko zein Europa mailako elkartasun eta lan-kidetzaren alde egin du. Horren adibide, 1973an Europako Sindikatuen Konfederazioaren sorreran parte hartu zuela.

Europar Batasuna kapitalaren morroi

Hala ere, sindikatuak oso jarrera kritikoa du Europar Batasunaren bilakaera politikoari dagokionez: ez ditu ontzat eman Maastrichtetik Lisboaraino onartutako itunak. Itun horiek orientazio neoliberala sendotu dute eta murrizketa eta austeritate politikak ezarri dituzte; ondorioz, demokrazia mugatu, langileen eskubideak ahuldu eta zerbitzu publikoak murriztu dira, herriak eta langileria botere ekonomikoaren interesen menpe jarriz. Horren emaitza izan da transnazional handien eta kapitalaren mesederako arkitektura politikoa.

Azken hamarkadetan ikusi dugu europar erakundeek austeritate politikak ezartzen dituztela, oraindik ere defizitaren kontrola lehenetsiz eskubide laboral eta sozialen gainetik. Ekonomia hazten ari den arren, langileriaren zati handi bat egoera larrian dago soldata kaskarren, zerbitzu publikoen desegitearen eta milioika europarrek etxebizitza eskuratzeko duten ezintasunaren ondorioz.

Langile klasearen pobretzea ez da baliabide eskasiaren ondorio; aitzitik, politika ekonomiko eta laborek soldatak depreziatzen dituzte enpresen etekinak handitzearen mesedetan, eta eredu fiskal bidegabeak lan errenten zati handia dirudunen eta kapitalaren poltsikora bideratzen du.

Ekonomian, norabide berean, akordio neokolonialak aipatu behar dira, esaterako EBren eta Mercosurren artekoa. ELAk ez du onartzen merkataritza itun hori, multinazional handien zerbitzurako eredu ekonomikoa finkatzen duelako, sozialki bidegabea eta ingurumen aldetik jasanezina. Itunak harreman neokolonial desorekatu bat sendotzen du: Europak balio erantsi handiko industria produktua esportatzen ditu, eta lan baldintza okerragoetan ekoiztutako lehengaiak eta nekazaritza produktuak inportatzen ditu, jatorrizko herrietan ingurumen inpaktu larria eraginez.

ELAk gogor salatzen du Europako Batzordeak akordioa behin behinean ezarri izana, Europako Parlamentuaren gehiengoak Europar Batasuneko Justizia Auzitegian akordioaren aurkako errekurtsoa jarri duenean eta auzia ebatzi gabe dagoenean. Horregatik, berrespena geldiarazteko eta justizia sozialean, iraunkortasun ekologikoan eta herrien eskubideetan oinarritutako merkataritza politikaren alde mobilizatzeko deia egiten du.

Austeritatea gizarte inbertsioan, diru publikoa armagintzarako eta gerrarako

Erabaki okerren segida horri beste bat gehituz, Europak “keynesianismo militarra”ren bidea hartu du: austeritate modu horren bidez, aurrekontu publikoetako funtsak armagintza elikatzerako bideratzen dira. ReArm Europe planak 800.000 milioi euro baino gehiagoko gastuak

aurreikusten ditu, horretarako estatuek beren BPGaren %1,5 ekarpena eginez. Militarizazio kezkagarri horrek murrizketak ekarriko ditu gastu sozialean eta zerbitzu publikoetan.

Hori gertatzen ari den bitartean, Europak baztertu egin du Ukrainako gerran elkarriketaren eta bakearen aldeko jarrera aktibo bat; aitzitik, bere hautua izan da gatazka gogortzea eta erantzun militarra lehenestea. Era berean, Palestinako genozidioaren konplize bihurtu da, Israelgo estatu kriminala finantzatuz eta hari babes logistikoa emanez.

Politika horrekin batera, eta eskuin muturraren programarekin bat eginez, oinarritzko giza eskubideetan ere atzera egin da: migrazio politika ankerra ari da ezartzen, mugak militarizatuz eta Europar Batasaneko mugaz kanpoko atxilotze eta barneratze eremuak sortuz.

Trumpen politiken menpeko

Trumpen muga zergen inposizioa onartu izanak eta Groenlandia inbaditzeko mehatxuak agerian utzi dute AEBekiko menpekotasun ekonomiko, politiko eta militarra. Horrek Europar Batasuna senegarritasunik gabe eta noraezean uzten du, eta bere gainbehera politikoa erakusten.

Groenlandiari dagokionez, ELAk, batetik, gogorarazi nahi du herri groenlandiarrak pairatu duen zapalkuntza eta kolonizazio historia; eta, bestetik, bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidea babestu nahi du, AEBen mehatxuen nahiz Danimarkarekin duen mendekotasun politikoaren aurrean.

Premiazkoa da Europako politikak bideratzea: giza eskubideak, demokrazia, burujabetzak eta justizia soziala

Egoera honetan, ELAk uste du europar politiketan norabide aldaketa sakona behar dela. Sindikatuaren aburuz, langileriak eta ezkerrek erantzun beharreko arazo nagusien artean daude Europako herritar xumeen artean etengabe hazten ari den pobretzea, faxismoaren gorakada eta AEB zein botere ekonomikoekiko menpekotasuna.

ELAren posizioa da egungo europar markoa gainditu eta beste bat eraiki behar dela, giza eskubideetan, demokrazian, burujabetzan eta justizia sozialean oinarritua. Sindikatuak nazio ezberdinak elkartuko dituen Europa demokratiko baten alde egiten du, herrien erabakitzeko eskubidea aitortuko duena, ingurumena errespetatzeko politiketan oinarrituko dena eta babes sozialerako zein zerbitzu publiko unibertsal eta kalitatezkoen bermea izango duena. Halaber, ELAk defendatzen du bizitzarako funtsezko ondasunak —eta pertsonak zein herriak menperatzeko erabil daitekeen guztia— ezin direla esku pribatuetan egon: baliabide horiek modu kolektiboan kudeatu behar dira, kontrol demokratiko eraginkorraren pean. Gaur gaurkoz, Europar Batasunaren markoa bateraezina da ELAk sustatzen duen ereduarekin.

ELAren iritziz, egoera honetan borroka soziala eta demokraziaren zein burujabetzaren aldarrikapena berebizikoak dira. Sindikatuak burujabetza pluralean ulertzen du: Europako politikaren ardatz nagusietako bat izan behar luke burujabetza ezberdinen alde lan egiteak; herrien erabakitzeko eskubidetik hasi eta funtsezko gaietan kontrola bermatzera arte: energia, elikadura, osasuna, zaintza, finantzak, industria, teknologia...

Marko honetan, burujabetzen defentsak erabakitzeko marko propioak sendotzea ere eskatzen du, hala nola lan harremanen eta babes sozialaren euskal markoa, eta funtzio publikoari

zein zerbitzu publikoei lotutako eskumenak. Horrek eskubideak blindatzeko aukera emango luke Europar Batasunaren eta Espainiako zein Frantziako estatuen inposizioen aurrean.

OTANen desagitea

Tentsio geopolitikoaren testuinguru honetan, Espainiako gobernuak Euskal Herriari NATOko kide izatea inposatu zionetik 40 urte betetzen direnean, ELAk uste du Europako politika birbi-deratzeko ezinbestekoa dela, Europaren eta hura osatzen duten herrien autonomia eta buru-jabetzaren funtsezko gaiari heltzea. AEBen mende erdiko mendekotasunari amaiera ematea eta munduko aliantza politiko militar arriskutsuenetakoa den NATOren desagitea sustatzea Europar Batasunaren helburu izan beharko luke. Euskal Herriak EZETZ esan zion NATOri, eta ELAren ustez adierazpen horrek erabateko indarra du, eta are garrantzia handiagoa hartzen du egungo testuinguruan.

4. BOTERE SINDIKALA, ELKARTASUNA ETA GREBA OROKORRA FAXISMOARI AURRE EGITEKO

Eskuin muturraren eta neofaxismoaren aurrerapauso kezkagarriak mehatxu zuzena dira eskubide sozialentzat, demokraziarentzat eta giza eskubideentzat. Mehatxu horrek zuzenean interpelatzen du sindikatua, indar ultra eta faxista horien helburua baita gure ereduaren kontrako gizarte bat eraikitzea.

Autoritarismoa eta faxismoa kapitalaren estrategia gisa

Ordenaren, egonkortasunaren eta nazionalismo baztertzailaren promesen atzean gorderik, mugimendu erreakzionario horiek botere egituren eta kapitalaren interesen ordezkari dira. Horretarako, ezkutatu egiten dute botere horiek zer erantzukizun duten pairatzen ari garen krisi anitzetan, eta jendearen haserrea eta amorrua sektore zapalduen aurka bideratzen dute: migratzaileak, LGTBI pertsonak, eta baita elkartasuna edo berdintasuna sustatzen duten feminismoa moduko ideologiak aurka ere.

XXI. mendeko faxismo berriak erantzun politiko gisa agertu dira ziurgabetasuna, pobreziaren hazkundera eta eraldaketa sozial zein kultural sakonek sortzen duten desorientazio eta segurtasun ezaren testuinguruan. Indar erreakzionario horiek baldintza horiek baliatzen dituzte beldur soziala, identitate krisia eta segurtasun ekonomikorik eza kapitalizatzeko, eta posizio erreakzionarioak zein erantzun autoritarioak bultzatzeko.

Demokrazia liberal formalen krisia eta ezkerren alternatibarik eza

Faxismoaren eta eskuin muturraren gorakada areagotu egiten da demokrazia liberal formalen krisiaren ondorioz. Gutxieneko prozedura instituzionalak formalki betetzen diren arren, demokrazia edukiz hustu da: gehiengo sozialaren beharrian eta interesei erantzuteari utzi zaio, eta bizitza duina izateko oinarritzko baldintza material eta emozionalak ez dira bermatzen. Defizit demokratiko horrek etsipena, desafekzioa eta proiektu kolektibo baten gabezia sortzen ditu; testuinguru horretan indartzen dira diskurtso faxistak eta erantzun autoritarioen onarpen soziala.

ELAren ustez, eskuin muturraren gorakada ulertzeko kontuan hartu behar dira ezkerren asimilazioa, moderazioa eta dagokion lekua hartu ez izana. Azken hamarkadetakoa oldarraldi neoliberalari aurre ez egitea ezkerren hutsegite estrategiko larria izan da, eta hori bereziki agerian geratu zen 2008ko krisiaren ondoren. Europan, ezkerrek botere ekonomikoekin konfrontatzeko estrategia baztertu izanak eragin du historikoki ezkerren feudo izan diren eremu batzuk eskuin muturrera lerratzea. Egoera honen aurrean, ezkerren lehentasuna izan beharko litzateke dagokion lekua berreskuratzea eta gehiengoaren ongizatea bermatuko duten politika sozialak bultzatzea.

Jendarte antifaxista eraiki

ELAren aburuz, Euskal Herrian oraindik ere hegemonia antifaxista bat dago, mugimendu eta une historiko ezberdinetatik eraikia: frankismoaren aurkako erresistentzia, borroka sindikala, feminismoaren indarra, independentismoa, gazte mugimendua, pentsionistak...

Hala ere, pentsatzea Euskal Herria faxismoaren eragin globaletik libre dela inozokeria eta arduragabekeria politikoa litzateke. Indar ultren ordezkartza instituzional txikiak ez du esan nahi haien balioak euskal gizartean presente ez daudenik.

ELAren ustez, borroka sindikala da langileria anitza kolpatzen duten zapalkuntza ezberdinei eman beharreko erantzuna eta alternatiba. Gizarte antifaxista indartzea ELAren eguneroko lan militantearen eginkizunetako bat da. Ekintza sindikalaren bidez sendotzen dugu klase kontzientzia, antirrazismoa, transfeminismoa, ekologismoa eta euskararen defentsa: gizarte antifaxista eraikitzen ari gara.

M17 Greba Orokorra: demokrazian eta justizia sozialean irabazteko burujabetza proposamena

Gutxieneko soldata propioaren aldeko Greba Orokorra defendatzen dugun kultura antifaxistaren beste urrats bat da. Grebak eta kontrabotereak agerian uzten dituzte desparekotasunen benetako arrazoiak, eta patronala, alderdi politikoak eta gobernuak interpelatzen dituzte: alde batetik, Espainiako gobernuaren inposizio zentralista salatuz, eta bestetik, gizarte zibilari herri ekimen legeegileen bidez parte hartzea eragozten dion Gasteizko zein Iruñeko parlamentuetan dagoen defizit demokratikoa seinalatuz.

Horregatik, martxoaren 17ko greba orokorra, gutxieneko soldata propioa bezalako aldarrikapen zehatzaz gain, klasea, elkartasuna eta politizazioa berresteko ekintza da testuinguru zail honetan; eta interpelazio zuzena da, instituzioek eta gobernuek sistematikoki ukatzen duten eztabaida eta erabaki kolektiboa exijitzeko.

Nazioarteko elkartasun antifaxista eta antiimperialista

ELAren iritziz, une honetan premiazkoa da mundu mailako sare eta ekimenak osatzea indar erlazioa hobetzeko eta inperialismoari zein faxismoari aurre egiteko. Horregatik, ezinbestekoa da sindikatuek eta herri mugimenduek mobilizazioaren bidez lortzen dituzten eguneroko erreferentzia eta garaipenen balioa azpimarratzea, globalak zein tokikoak izan: ICEren atxilotetak geldiarazteko mobilizazioak, Palestinarekiko elkartasuna, faxismoaren aurkako manifestazioak edo gurean egiten diren grebak.

Illo berean, ELAk parte hartuko du martxoan Porto Alegren egingo den Nazioarteko Konferentzia Antifaxista eta Antiinperialistan; aukera izango da harremanak estutzeko eta indar ezberdinen artean —sozialistak, ekologistak, feministak, antirrazistak eta internazionalistak— ekintza zehatzak adosteko.

5. ONDORIOAK

- a) ELAren ustez, langile klaseak eta ezkerak erantzun beharreko arazo nagusien artean daude Europako langileriaren pobretzea, faxismoaren hazkundea eta militarismoaren zein inperialismoaren gorakada.
- b) Egungo tentsio eta mehatxu geopolitikoen aurrean, ELAk salatzen du gizateriaren aurkako arrisku larria dela sistema ekonomiko kapitalista hau: praktikan prekaritate masiboa hedatzen duelako eta planetaren suntsipena eragiten duelako. Mehatxu hori geldiarazteko eta borrokatzeko bide bakarra politika ekosozialista, feminista eta anti-rrazista da.
- c) ELAk, beste behin ere, gaitzesten du AEBetako gobernuaren inperialismoa eta NATO desagitea exijitzen du, munduan bakea bermatzeko ezinbesteko ekarpen gisa. Testuiguru honetan, Europak aukera du AEBekiko menpekotasun ekonomiko eta militarrekin amaitzeko.
- d) Langile klaseare pobretze progresiboa gertatzen ari den fase honetan, ELAk politika europarrak berrorientatzea eta aldaketa sakon bat egitea eskatzen du, beharrian sozialak lehenesteko. Sindikatuak jarrera irmoa du ReArm Europe planaren bidezko ekonomia-aren militarizazioaren aurka; eta EBren eta Mercosurren arteko akordioa bertan behera uztea eskatzen du. ELAk gobernuak eta alderdi politikoak interpelatzen ditu gizartearen benetako beharrianak aintzat har ditzaten eta haren proposamenei bide eman diezaieten, pertsonen bizitza hobetzeko eta eskuin muturra zein faxismoa elikatzen duen ondoeza desaktibatzeke.
- e) ELA kezkatuta dago eskuin muturraren eta faxismoaren gorakadagatik. Mehatxu horrek zuzenean interpelatzen du sindikatua, indar ultra eta faxista horien helburua delako gure ereduaren kontrako gizarte bat eraikitzea. Horregatik, sindikatuak mobilizaziorako deia egiten du eta gurean gizarte antifaxista eraikitzen duten milaka militanteren eguneroko lan militantea goraipatzen du. Martxoaren 17ko greba orokorra eginkizun militante horren beste urrats bat da. Burujabetzaren, aberastasunaren banaketaren, etxebizitza eskubidearen eta sektore estrategikoen kontrol publikoaren aldeko borroka ezin bereiz daiteke borroka antifaxistatik eta demokraziaren defentsatik.